

# Heldutasunaren bidetik gazteak...

GEKAN LANTZIRI



**B**ERE heldutasunaren froga eman digu, ene ustez. Ema-gazte taldeak, sida edo hiesaren kontrako kanpaina bat publikoki bultzatuz. Lehen aldia da, ene jakinean bederen, gazte multzo batek, politik talde gisa, buru egiten diola gaurko gazteak bereziki eta gizarteak orokorki bizi duen arazo larri horri. Noiz eta non buru egin, gazteria gehienik biltzen den garaian eta tokian ez bada? Bainako besten karietara hain zuzen.

Geroa gazteriarena da. Eta Euskal-Herrian daukagun gazteria sanoa, aintz Herrik nahiko Ludekela, dudarik ez. Nola lortzen duen sanotasun hori? Gorpuzaren (eta gogoaren) osasunaz arta hartuz, jakina. Janari edarien aldetik bezala, harreman sexualen aldetik ere.

Heldutasunez eman duten lehen urrats horrek jarraipen bat behar lukeela, berez doan gauza da. Kapota bat paper batekin banatzeak abiatu duen solasketa gogoetalaran ere bihurtzeko. Funtsezko arazoa agertzeko eta argitzeko, informatze-lanak formatze-lana behar du lagun gisa. Ea ba sail horri ere lotzen zaizkion.

Edozein sailletan bezala, sexual saillean ere, errekierak moralkerikak bezala, mutil-nesken, gizon-emazteen nortasuna beti non-bait zapaltzen du eta zauritzen.

Gazteek berek ziotena, garrantzitsua da norberak bere eta besteen osagarria errespeta dezan. Bai eta gorputza. Gorputzen erresperturik gabe ere maitasunik ez baita.

# Anoetalquivir

TXILLARDEGI



## DONOSTIAKO

agintariari ez omen zitzaion Kirolegi berriaren izena batera gustatzen: Anoeta... Haserako hiru letra horien usain txarraz... tira! Baina bukaerako hiruez, nola onar? Inolaz ere ez.


Eta "Cuadernos de Alzate" ko langabetuei nolazpait eginkizunen bat eskaini nahiz, "Anoeta" hori espainiaritzeko agindua eman diete. Batzuek "Guadanoeta" proposatu dute; baina Udaletxeko Burusoil Gorenari ez bide zaio egoki iruditu; bukaera hori nabarmenegi. Beste batzuek "Anoetzanans" proposatu dute; eta beste batzuek, oso gusto txarraz, "Ipurdigal" kakofonikoa.

Eta orduan, Burusoil Gorenaren aginduz, hau onartu omen da: "Anoetalquivir", «en recuerdo de nuestra inmortal celebración del Centenario en Sevilla».

H.B.ko ordezkariak, gomitolarriak jota irten dira Udal-Aretotik; artean, gainerako zinegotzi guztiak, esku-zartaldi azkengabea, orgasmora iristen zirelarik.

Eta Burusoil Gorenak hitza hartu du: «Este es un acontecimiento histórico sin precedentes. Siguiendo el ejemplo de la letona Riga, que acaba de invitar al equipo Dynamo de Mosku para la inauguración de su nuevo estadio; siguiendo el ejemplo de Yassir Arafat, que acaba de invitar al equipo del Tel-Aviv para la inauguración del estadio de Gaza; y de lo que, con buen acuerdo, decidió Arana-Goiri que, siendo concejal de Bilbao, propuso que invitara al Real Ciclista Balompié de Madrid para la inauguración de San Mamés; y también, por la senda que bien marcó el general ferrolano, propongo y dispongo que sea el propio Real Madrid quien inaugure el estadio de Anoetalquivir...» «Se levanta la sesión: bai/si»...

# HEMEROTEKA



Orain! Orain! Ikusi 'izar euria'

## ● DEIA

### Hasiera txarra Anoetako estadioarentzat

Klub txuri-urdinak, era berean. Anoetaren estreinaldirako Real Madriderik zeukan kontratu-klausula zahar bat erabiltzean merkantilismoz hornituta dagoela erakutsi du. Gehiago handi baten iritzi Euskal Herriko estadio nazionala izango denak ez zuten horrelako hasierarik merezi. Atotxa zaharrak, nabarmenki beti Real-Athletic partiduetan bete zenak, futbol mundua Real-Euskadiko Selektzioa partiduaren bidez agurtu zuten eta horrek kasu hauetan futbola kirola eta, ezbaierik gabe, mer-

kantilismo hutsa baino zerbitz gehiago badela pentsatzen irraitzen dugunok bertan sentitutako zirraren bulkadari eustera behartu gintuen.

EDITORIALA

## ● EL PAIS

### Europa, epeka

Maastrichten erabakitako epelek aldatzek, berez, beste zailtasun bat dakar, hain zuzen hitzarmenaren aldaketa den Pandoraren kutxa irekita gelditzea, inork eta beste ezinekin baino gutxiago Europako Batzordeak nahi ez duen gauza. Baina, pentsa al daiteke Europako diru batasunaz Alemania bertan egon gabe? Ez, Erresuma Batua edo Frantzia edo Ita-

OROZ / DIARIO DE NAVARRA

lia bera ere bertan egon gabe hori irudikatzea zaila den modu berean. Kohlek mahai gainean argitu behar den arazo errealtatzea besterik ez du egin.

EDITORIALA

## ● LAVANGUARDIA

### Haurrak gerran

Europak ados jarri gabe jarraitzen du Bosnia Herzegovinako gai lagarriaren inguruan. NATO motorek berotzen ari da Italiako aireportuetan, hegazkinak armaz beteta daudela. Errusiak ez du begi onez ikusten serbiarren aurkako eskuhartze militarra. Eta serbiarrak, bitartean, saguaren eta katuaeren gisa ari dira, muinoetatik ba-dozela esanez, errealtatean

EDITORIALA

# UZENDARIARI

## Merezitako oporrak

«Ni, ni, ni... gu, gu, gu...» Jokaera txit triskatzaile, txit sunsitzaile, txit zaitzaile... txit hondatzailearentzat ez ote dago oporrik? Opor kontuan ere, ni, ni, ni... gi, gu, gu... izan! Malapatuta!

Gogorarazten diogu, entzun eta ikus gura badu behintzat, opor-giroa gutzit osasuntsua ezetik ezinbestekoa ere badela Osotasuna bizi gura duenarentzat. Horiek horrela, "Zeru-Lur" Unibertsitateak 5000 urteko gaitza "honoris kausa" izendatzen du eta, behin betirako oporrak ematen dizkio, eta adierazi ere adierazi, merezimendu oso-oso irabaziak dituela. Agur betirako!

Jokabide honen goseak eta handikeriak ez al du mugarik? Hori bai, dabilen lekuan badu gezurra, saltsa eta zikina, alajainetan! Eta gutziro aterki nuklearraren babesean, badaezpada! Jokaera honen hazia Ustea da, hau da, Alderditxoak, handiena delarik ere. Eta Ustek... Ustela... Ustelkeria: Duguna. Hau eromena! Konponbidea? Arriskua sentitzetik, begiratuzetik, ikustetik, ulertze-

tik sortzen den kemena eta adorea. Inoren eta ezeren izenean, goiak eta beheak, gaikaldetarrak eta behekaldeetarrak Menderatzea eginkizun izan duen joera oporretara ez badao laster dugu 'eguzkia-zpia' zeharo ustelduta. Eta hau, lagunok, ez da ustea Dena baino, begibistan dagoena, gizakiaren bene-benetako neurria eta ezangarria: Ekintza. Eta dena Dena da, Da eta kito, nahi edo ez nahi.

PELLO SARRIEGI URREBIZKALIA  
Barrika (Bizkaia)

## Euskalategi libre 'guztiak'

Benetazko albistea, Eusko Jauritaritzak (HABEk) euskalategi libre guztiak dagokien dirulaguntza gabe utzi ditzaiekeela da —bi hitzetan laburtzeko—. Eta oso bestelakoa da komunitadeak eta jendea orokorki ematen ari direna: AEK dirulaguntza gabe g-

ratzeko arriskuan dagoela. Azkeneko baitapen hau egia bada ere, kontutan hartu behar da Komunitate Autonomoko euskalategi libre guztiak ez daukela AEKren barruan; IKA erakundeak ere euskalategi libreak badituela, naiz eta kopuru gutxiagoan, eta hauek dirulaguntza gabe gelditzeko arrisku berdin-berdinean daudela. Hau da, erabakia hartuko balitz euskalategia, orokorrean, izango litzatekeela kaltetua.

Honekin gauzak argitu eta arazoari aurre egiteko denok elkarlanean aritu behar dugula adierazi nahi nuke, bakoitzak bere kolkoari begira iruzter gero jai bait daukagu.

Hau da gutizia, idatzi hau Eusko Jauritaritzaren euskarrenganako jarrera salatzeko aprobetxatu besterik ez. Eskerririk asko hau irakurtzeagatik.

(Oharra: Ez naiz IKAKo irakaslea edo horrelako ezer).

ANE LARDI  
Oliartzun (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA



## Bilboko Aste Nagusia

Urtero legez kapitalean jaiek dute hasiera, astebeteko muga jarrita aprobetxatzen topera. Jende multzoak hona ta hara inurri taldeen antzera; animo eta etorri zaitetz etzazu galdu aukera, Bilboko Aste Nagusiari bisita bat egitera.

OIHANE ENBEITA

# Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

JODI IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URIA

Gereontea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS

Capital: Haya 1, 2, 28020 Madrid. ☎: 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

## HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pablioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egokitzetza, Publizitatea eta Administrazioa: Anso Jakituna, 16-1, 20010 Donostia / ☎: 40 90 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñeko dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1 ezkerrean, / 48003 Bilbo / ☎: 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecou 14, 1 / 503 Posto Kutxan, / 64100 Barona / ☎: 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11